



311/2015 Ebazpena, 2015eko urriaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez agintzen da argitaratu behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian 1. Lehenetsuneko eta 2. Lehenetsuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (Aldi baterako kontratazio zerrendak 2014), B1 lanbide-taldeko kategorietarako (Erizainena izan ezik, dagoeneko argitaratu delako) eta Gizarte-langileen kategoriarako (B2 lanbide-taldea)

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategorietarako.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,


## EBATZI DUT


**Lehenena.-** Agindua ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian hauek argitaratzeko: 1. Lehenetsuneko eta 2. Lehenetsuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modura, B1 lanbide-taldeko gainerako kategorietarako (Erizainena izan ezik) eta B2 lanbide-taldeko Gizarte-langileen kategoriarako.

Zerrenda horiek indarrean sartuko dira 2015eko urriaren 27an.

**Bigarrenena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun baliaduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 20an

 Osakidetza

Iz.:   
Jose Maria Armentia Macazaga  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD